

**FESTA GUNEETAKO ERASO SEXISTEN  
PREBENTZIOA ETA ARRETA  
TOKIKO PROTOKOLOA**



Ayuntamiento de  
ANSOÁIN



ANTSOAINgo  
Udala

**2018ko ABUZTUA**

Antsoaingo Udalak, bertako Berdintasunerako Batzordeak<sup>1</sup> proposatuta, abuztuaren 29ko osoko bilkuran, ***Festa guneeetako eraso sexisten prebentziorako eta arretarako tokiko protokolo*** hau onartu du.

Protokolo honen arauzko esparrua ***14/2015 Foru Legea da, apirilaren 10ekoa, Emakumeen kontrako Indarkeriari aurre egitekoa***<sup>2</sup>. Lege horrek, hain zuzen, 17. artikuluan (*Sentsibilizazio sozialerako eta informaziorako neurriak*) hau jasotzen du:

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta toki entitateek sentsibilizaziorako kanpaina instituzionalak eginen dituzte, emakumeen kontrako diskriminazio eta indarkeriaren gaitzespen soziala sustatzeko eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde egiteko.
2. Horrekin batera, informaziorako kanpainak eta ekintzak eginen dira, emakumeek behar besteko informazioa izan dezaten haien eskubideez eta dauden baliabideez, eta arreta berezia emanen zaie talde hauei: landaguneetako emakumeak, migratzaileak, ijitoen etniakoak, desgaitasuna edo menpekotasuna dutenak, gizartean baztertuta, arriskuan edo egoera ahulean daudenak eta babesgabezia handiagoa izan daitekeen talde edo esparruak, horien artean, lan esparrua.

Halaber, 20. artikuluan (*Indarkeria detektatzeko erantzukizun soziala*) hau adierazten du: Foru Administrazioak detekzio, jarduketa eta deribaziorako protokolo bereziak prestatuko ditu bere lurralde esparruko toki entitateekin elkarlanean, eta prozesu horietan dituen inplikazioa eta eginkizunak kontuan hartuta. Protokolo horietan ildo batzuk ezarriko dira emakumeen kontrako indarkeria mota desberdinen aurrean lan egiteko.

Horrez gain, lan honek 2010-2014 aldirako ***Antsoaingo emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasunaren aldeko I. planeko Emakumeen aurkako indarkeriaren zeharkako alorraren*** bi ekintza hauei erantzuten die: V1.1.2.- *Tokiko jarduketa-protokoloa egitea, emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei laguntzeko, oinarritzat hartuz Nafarroako Gobernuaren Jarduketa Protokolo Integrala; eta V2.1.1.- Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko sentikortze eta prebentzio*

---

<sup>1</sup> GIZARTE GAIETARAKO ETA BIZIKIDETZARAKO BATZORDEA (Gizarte zerbitzuak, berdintasuna, dibertsitatea, osasuna, garapen iraunkorra, garapenerako lankidetzeta eta batzorde mistoa Udala/Etxegabetzeen kontrako plataforma).

<sup>2</sup> Hemendik aurrera EKIAL.

*kanpainak egitea herritarren artean. Zehazki, Antsoaingo Udalak osoko bilkuran onartu zuen 2010eko urtarrilaren 27an eta 2010eko apirilaren 19an eman zuen argitara 48. zenbakiko Nafarroako Aldizkari Ofizialean.*

Udal mailan, Antsoainen emakumeen aurkako indarkeriaren kontra jarduteko tokiko protokoloari erantzuten dio, 2011n egindakoari. Udalaren beraren eta eraso sexisten prebentzioan eta arretan inplikaturik dauden zerbitzu desberdinen jarduna jasotzen du.

Horrez gain, eraso sexisten gainean duela hainbat urtetik Antsoainen egin diren kanpainen esperientziak hartzen ditu kontuan. Kanpaina horietako batzuk Udaleko Berdintasunerako Zerbitzuak sustatutakoak dira, Antsoaingo Emakumeen Taldearekin elkarlanean, eta beste batzuk herri mugimenduak bultzatutakoak, txosnetan. Era berean, talde feministek eta emakumeen elkarteek egindako lana aitortzen du, bai eta Nafarroako beste toki erakunde batzuek egindakoa ere zenbait urtean.

Halaber, Nafarroako Berdintasunerako Institutuak eta Nafarroako toki erakundeetako berdintasuneko teknikarien taldeak<sup>3</sup> ***Festa guneetan eraso sexisten prebentziorako eta arretarako tokiko protokoloaren eredia*** egiteko egindako lana eskertu nahi du, protokolo honetarako oinarria izan baita.

---

<sup>3</sup> *Ablitasko Udala, Antsoaingo Udala, Barañaino Udala, Baztango Udala, Berriozarko Udala, Burlatako Udala, Cintruénigoko Udala, Lizarrako Udala, Iruñeko Udala, Ribaforadako Udala, Tafallako Udala, Tuterako Udala, Eguesibarko Udala, Atarrabiako Udala, Zizur Nagusiko Udala, Nafarroako Erdialdeko Garapen Partzuergoa, Noaingo Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea, Ultzama aldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea, Leitza, Goizueta, Areso eta Aranoko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea.*

## 1. ZATIA. ESPARRU TEORIKOA ETA EGITURAK

### 1.1 ZIOEN AZALPENA

Antsoaingo Udalak, toki erakunde moduan, jarrera aktiboa eduki behar du festa guneetan emakumeen kontra egiten diren indarkeria desberdinen aurrean, sendo eta batera salatu behar ditu, eta indarkeria horiek prebenitu eta errotik kentzeko lan egin behar du.

Gainera, udalerrriaren iraunkortasunarekiko konpromisoak berekin dakar bidezkoagoak, berdintasunezkoagoak, diren harremanen eredu berri bat eraikitzearen alde egitea, balio patriarkalak eta matxistak gure herritik behin betiko baztertuko dituen. Hori lortzeko, onartzen du bertako herritarrak eta ingurunea zaintzea bere politika publikoen erdigunean jarri behar duela, balio feministetatik egiten den eran, emakumeen aurkako biolentziek garapen iraunkor horri larriki erasotzen diotelako uste osoa izanda.

Asmoa da biztanleria osoa, herritarrak, erakundeak eta taldeak, emakumeen kontrako indarkeria ezabatzearen arduradun sentiaraztea: **dei berezia egitea gizon helduei eta gazteei horretan laguntzeko eta ez izateko konplize; eta emakume gazteak eta helduak animatzea mota guztietako erasoei erantzuteko eta beste emakume batzuen babesa bilatzeko.**

### 1.2 HELBURUAK

- Eraso sexistekin lotutako prebentzioari, sentsibilizazioari, arretari eta komunikazioari dagozkien prozedurak sistematizatzea eta adostea.
- Festa guneetan eraso sexistei aurrea hartzea.
- Herritar guztiei ematea emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko erantzukizuna.

### 1. 3 TESTUINGURUAN KOKATZE TEORIKOA

- Nazio Batuen Erakundeak adierazten duen moduan, emakumeen kontrako indarkeriak gure ingurunean garatzen diren giza eskubideen urraketa larrienetako batzuk dira. Emakumeen eta gizonen arteko botere harremanen desoreka adierazten dute, emakumeak mendean izatea eta diskriminatzea ekarri duena, eta hori oztopo handi bat da edozein gizarte demokratikoren garapenerako.
- Indarkeria horiek sozietate heteropatriarkalen egituraren agertzen diren fenomeno bat dira, gizonek emakumeen gainean berenganatutako nagusitasuna eta abusua justifikatu izan dituzten balio eta arau sozio-kulturaletan oinarritzen dena. Indarkeria mota horiek normaltasunez jantzi dira, gizonek emakumeen gainean duten nagusitasuna rolen banaketa desberdin batekin lerrokatzen dela uste izan delako. Barnetik sortuak dira, beraz, eta elkarbizitza diseinatutako ereduaren azpian egonkortzeko elementu gisara jarduten dira. Beste modu batean esanda, kontrol sozialerako tresnak dira, desberdintasun horri eusteko eta hori iraunarazteko.
- Ugariak dira emakumeen aurkako indarkeria motak eta ugariak dira era berean indarkeria hori jasaten duten emakumeen esperientzia pertsonalak, faktore ugari baitaude tartean, hala nola jatorri etnikoa, gizarte maila, adina, sexu-orientazioa, dibertsitate funtzionala, nazionalitatea eta erlijioa.
- Emakumeen kontrako indarkeria ezabatzeko modu bakarra dago: generoan oinarritutako diskriminazioa ezabatzea. Emakumeak ahalduntzea funtsezko urratsa da indarkeriari aurrea hartzeko eta eragindako emakumeek bizirik irauteko; funtsezkoa da, halaber, haurrak, gazteak eta adinekoak berdintasunean eta askatasunean hezteak.
- Gizarte berdinoak lortzeko bidean aurrera egiteak eta teoria eta mugimendu feministaren ekarpenek azaltzen dute, neurri handi batean, emakumeen kontrako indarkeriak zilegitasuna galtzea, batetik, eta lehen mailako arazo sozial eta politiko gisara birkontzeptualizatzea, bestetik; horren ondorioz, errotik kentzeko lan egin behar da.

## 1. 4 TERMINOLOGIA

### Emakumeen kontrako indarkeriaren definizioa, EKIALen arabera

Emakumea izateagatik emakumeen kontra bideratzen den indarkeria, edo haiengan proportziorik gabeko eragina duena, genero diskriminazioaren agerpen gisa, eta emakumeentzako kalte edo oinaze fisikoa, psikologikoa, sexuala edo ekonomikoa dakarrena edo ekartzen ahal duena, mehatxuak, beldurrarazteak eta hertsatzeak edo askatasun gabetze arbitrarioak barne hartuta eta bizitza publikoan edo pribatuan gertatzen den aintzat hartu gabe.

Hauek dira emakumeen kontrako indarkeriaren **agerpenak**: indarkeria bikotean edo bikote ohian, sexu indarkeriaren agerpen guztiak, feminizidioa, gazteegitan ezkontzea, ezkontza hitzartua edo behartua, emakumeen genitalen mutilazioa, eta arlo honetako araudian aurreikusita dagoen beste edozein indarkeria mota.

Emakumeen kontra erabilitako indarkeria **motak**: indarkeria fisikoa, indarkeria psikologikoa, indarkeria ekonomikoa eta **indarkeria sexuala**.

EKIALek emakumeen kontrako indarkeriaz egiten duen definizioa zabalagoa da, eta mota gehiago aitortzen ditu estatuko arauak baino (1/2004 Lege Organikoa). Izan ere, azken horrek genero indarkeriaren kontzeptua baliatzen du, eta indarkeria hori afektibitate harremanen eremura mugatzen du (bikotea eta bikote ohia).

### Eraso sexistak

Eraso sexistak normalizat jo izan direnez, eta hala jarraitzen dutenez, sarri askotan jarrera horiek ez dira botere abusutzat hartzen, ezta larderiako ekintzatzat ere. Gero eta onarpen gutxiago badute ere, eta gizartea horiek identifikatzen hasi den arren, oro har, eraso sexistak ez dira emakumeen kontrako indarkeriarekin lotzen iruditegi sozialean. Hori dela-eta, garrantzitsua da eraso horiei aurea hartzea eta gertatzen direnean aurre egitea, justifikatuko edo zilegitzat joko dituen inolako egoerarik aintzat hartu gabe.

Emakumeen osotasun pertsonalari eta askatasunari kalte egiten dioten jokabide guztiak dira eraso sexistak. Horrenbestez, hauek eraso sexistak dira: jazarpen fisikoaren mota guztiak (indarkeriaz eta onartu gabe egindako musu, besarkada eta ukitze guztiak, adibidez), hitzezko jazarpena (irainak, komentario edo iruzkin misoginoak, iraingarriak edo emakumeak objektu bilakatzen dituztenak) eta hitzezkoa ez dena (larderiako ekintzak eta kontrolatzera bideratutakoak, eta abar).

Festa guneetan gertatzen ahal den eraso sexisten agerpenik larrienetako bat **indarkeria sexuala** da: **onartu edo baimendu gabeko edozein sexu ekintza**, indarkeria, mehatxua, nagusikeria edo manipulazio emozionala tarteko direla, sexu harremanak erakutsi, ikusi edo izatera behartzea barne. Emakumeen eta neskatoen kontrako sexu indarkeriaren agerpenak sexu erasoak, sexu abusua eta sexu jazarpena dira:

**Sexu erasoak:** sexu askatasunaren aurkako delitua, indarkeriaz edo larderiak egiten bada, eta biktimak onartu edo baimendu ez badu. **Bortxaketa** sexu eraso bat da, eta koittoa baginatik, uzkitik edo ahotik gauzatzean datza edo lehenbiziko bi bide horietako batetik gorputz adarren bat edo objekturen bat sartzean (Zigor Kodearen 179. artikulua).

**Sexu abusua:** sexu askatasunaren aurkako delitua, indarkeria edo larderiarik gabe egiten bada, baina biktimak onartu edo baimendu ez badu.

**Sexu jazarpena:** sexu askatasunaren aurkako delitua, eta nagusitasun egoera batez baliatuz mesede sexualak eskatzeko jokabideak hartzen ditu barne.

**Lurralde esparrua:** Antsoaingo udalerrarena. Hala ere, 'Eraso sexisten kontrako mahaiak' baloratu ahal izango ditu, herritik kanpo gertatu arren, udalerriko emakumeei eragiten dieten kasuak.

## 1.5 ESKU HARTZEKO IRIZPIDEAK

Eraso sexisten aurkako jarduketa guztiek jarraitu beharko diete irizpide hauei:

- Emakumea babestea eta informazioa konfidentziala izatea. Erasoa adingabe baten aurkakoa bada, familiarekin harremanetan jartzea.
- Bizirik atera den biktimaren iritzia, bere intimitatea eta jarduteko garaian hartzen dituen erabakiak errespetatzea.
- Koordinazioz eta modu bateratuan aritzea.
- Erasotzailea identifikatzea.
- Zurrumurruak eragozteko edo moztea.
- Biktima bigarren aldiz biktima ez bihurtzea.

Erreferentziazko informazio komuna:

- Larrialdiko arretarako telefonoa, eguneko 24 orduetan: 112 SOS Nafarroa eta Udaltzaingoa (609 419 444).
- Informaziorako eta kontsultarako telefonoa: 016.
- Herritarren kexei eta galderei arreta ematea: [igualdad@ansoain.es](mailto:igualdad@ansoain.es)



## 1.6 PROTOKOLOA KUDEATZEKO EGITURAK

### 1. Festetako Eraso Sexisten Kontrako Mahaia:

Parte hartzeko organo bat da, Alkatetza eta/edo Berdintasun Batzordearen Lehendakaritza buru duena eta hauek eratzten dutena: talde politikoak, emakumeen taldeen eta gainerako herritarren ordezkariak, berdintasuneko teknikaria eta, beharrezkotzat jotzen bada, zuzenean inplikaturako udal zerbitzuen ordezkari bat, eta bai mahaiak berak zehazten duen beste edozein pertsona.

Etengabeko lanerako gune bat da, eta festen aurretik eta ondoren aritzen da. Prebentzioaren arloko eginkizunez eta kasurik larrienen analisia egiteaz gain, mahai honek udalean eraso sexistei ematen zaien erantzunaren berri izango du, halakorik gertatzen den guztietan, eta herritarrak mobilizatzen lagunduko du, egokitzen jotzen denean. Udala pertsonatzeko proposamena ere aztertzen da, herri-akzio gisa, 14/2015 Foru Legearen 65<sup>4</sup>. artikulua arabera, emakumeen aurkako indarkeriaren kontra jarduteko.

Berdintasun Arloa, ardura duten politikarien bidez, arduratuko da mahaiak koordinatzeaz eta aholkuak emateaz, berdintasuneko teknikarien lankidetzarekin. Eginkizunen artean hauek izango ditu:

- Sentsibilizazio kanpaina diseinatzea.
- Parte hartzaileek genero eta berdintasun arloko prestakuntza jaso dezaten bultzatzea.
- Lelo bateratua izatea, eraso sexistei erantzun moduan.
- Elkarretaratze publiko bateratuen guneari buruzko akordioa.
- Baliabideen eta zerbitzuen gaineko informaziorako telefonoak.

---

<sup>4</sup> **65. artikulua.** *Administrazioa pertsonatzea emakumeen aurkako indarkeria arrazoiengatik irekitako prozedura penaletan.*

1. *Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta toki entitateek prozedura penaletan pertsonatzea erabakitzen ahaliko dute herri-akzioa egikaritzeko, emakumeen aurkako indarkeriaren kasu larrietan edo delitu ekintzaren ondorioz emakumea hiltzen denean, arlo zibilean kalteturiko alderdi gisa, Prozedura Kriminalari buruzko Legearen 110. artikuluan ezarritakoarekin bat.*

2. *Epaiketako ordezkariak eta defentsa Nafarroako Gobernuari eta, kasua bada, toki entitateei dagozkie, ezertan galarazi gabe ordezkariak eta defentsa eginkizun horiek jarduneko abokatu profesional bati edo batzuei esleitu ahal izatea, baldin eta jardunean egonik abokatuen elkargo bateko kide badira, autonomia erkidegoko Administrazioaren zerbitzu juridikoei buruzko araudiari jarraituz, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 447. artikuluan ezarritakoarekin bat.*

Mahaia zaindariaren omenezko festen aurretik eta ondoren bilduko da, eta bai gutxienez bi kidek eskatzen duten guztietan ere.

## **2. Bozeramaile Batzarra:**

Udalan informazioa emateko eta erabakiak hartzeko espazioa da. Udalak izan beharreko jarrera ofiziala adosten du. Eginkizunen artean hauek ditu:

- Adierazpen bateratua egitea eta akordioa, udalak bandoa atera behar badu.
- Herri-akzio gisa udala pertsonatuko den edo ez erabakitzea, 14/2015 Foru Legearen 65.1 artikulua araberak, emakumeen kontrako indarkeriaren aurka jarduteko, Eraso Sexisten Kontrako Mahaiaren proposamena aztertu eta gero.

Bozeramaile Batzarrak berdintasuneko teknikariaren aholkularitza jaso ahal izango du, beste edozein prozeduratan bezala.

Aurretik, berdintasuneko teknikariak komunikazio eta adierazpen instituzionaleko proposamen bat egingo du. Adierazpenaren eredia, eta bai erantzun instituzionala ematen den kasuak eta hura egiteko modua ere, gainerako alderdi politikoekin adostu beharko da, eta Eraso Sexisten Kontrako Mahaiarekin adosten saiatu beharko da.

## **3. Komunikazioa Kudeatzeko Mahaia:**

Eraso sexistak direla-eta gauzatu beharreko komunikazio ekintzak proposatzen dizkio Bozeramaile Batzarrari. Alkatetzak, Berdintasun Arloak eta Udaltzaingoak eratzen dute. Bere eginkizunen artean hauek daude:

- Mahaiari eta Bozeramaile Batzarrari laguntza tekniko ematea komunikazio proposamenetan eta adierazpen instituzionaletan, festa guneetan sortutako kasu larrietarako eta/edo hilketa eragin duten kasuetarako. Alderdi politiko guztiekin adostuko da adierazpen ofizialaren eredia, eta bai erantzun instituzionala ematen den kasuak eta hura egiteko modua.
- Kasuen analisia egitea eta erabakitzea noiz eman behar den erantzun publiko bat eta zer neurritakoa izan behar duen.
- Komunikazio ekintzak diseinatzea eta egitea: hedabideetarako informazioa, salaketa kartelak, akordioen eta adierazpenen testuak, eta prentsa oharrak.
- Informazioa biltzea eta aztertzea, ondoren Eraso Sexisten Kontrako Mahaiari jakinarazteko.

Berdintasun Arloak eta bertako teknikariak egin eta proposatuko dute eraso sexistak direla-eta udalak plazaratu beharreko komunikazioa. Gainera, bere ardura izango da protokolo hau aplikatzeari buruzko ebaluazioaren txostena egitea eta protokoloa zerbitzuen, erakundeen, taldeen eta herritarren artean zabaltzea.

## 2. ZATIA. JARDUTEKO PROPOSAMENAK

### 2.1 ERASO SEXISTEI AURREA HARTZEA

Festak prestatu aurretik, festa gunek emakumeentzako gunek libre gisa pentsatu behar dira, erasorik onartuko ez den gunek gisa. Gainera, beharrezkoa da Festetako Eraso Sexisten Kontrako Mahaia eratzen duten alderdi guztiek beren erantzukizunak ezagutzea eta beren gain hartzea.

#### UDALAREN ERANTZUKIZUNAK:

- Festetarako berdintasun kanpaina garatzea, hauek guztiak barnean hartuta: adierazpenak, bandoak, kartelak kaleetan, elkarreteetan, tabernetan, saltokietan eta jaietako egitarauetan, eranskailuak, olanak, zapiak, bizkarrekoak eta abar.
- Festetan berdintasuna sustatzen duten jarduketak antolatzea.
- Nafarroako Gobernuaren Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren “Eta jaietan... zer?” kanpaina parte hartzea edo beste kanpaina batzuetan beste erakunde batzuekin (tokiko erakundeak, taldeak, GKEak eta abar).
- Gako diren eragileei, garrantzitsuei, prestakuntza ematea, haietako bakoitzak arlo honetan duen eginkizun zehatza kontuan hartuta.
- Festetan parte hartzen duten udal zerbitzuak koordinatzea.
- Aholkularitza ematea eta jarraipena egitea festetan udalak zuzenean antolatu eta kanpoan kontratatutako ekintzetan erabiltzen diren hizkuntza eta irudiak sexistak izan ez daitezen.
- Autodefentsa feministako eta festa guneeetan emakumeak ahalduntzea lortzeko ikastaroak antolatzea.
- Udaleko gunek arriskutsuen mapak egitea, eta bai haiek hobetzeko proposamenak ere, herriko emakumeek parte hartzea erraztu eta bultzatuta.
- Berdintasuneko lehiaketak.
- Erasoen kontrako jarraibideak dituzten gidak egitea.
- Genero adierazleak garatzea, festak eta generoak haietan duen eragina ebaluatzeko.

- Gidak, dekalogoak, eskuliburuak eta abar garatzea emakumeentzat, herritarrentzat, taldeentzat eta elkarteentzat.
- Jarduteko jarraibideak garatzea udal zerbitzuetarako eta kontratatutako kanpoko zerbitzuetarako: Udaltzaingoa, orkestrak, animazio eta antzerki taldeak, kirol taldeak eta kirolariak...
- Berdintasun Zerbitzuaren helbide elektronikoari zabalkundea ematea: [igualdad@ansoain.es](mailto:igualdad@ansoain.es) (berdintasuneko teknikariak kudeatua), festetan gertatu diren eta herritarrek detektatu dituzten jarrera eta eduki sexistei buruzko informazioa jasotzeko, hartara, zaindariaren omenezko hurrengo jaiak aldatu eta haietarako alternatibak proposatu ahal izateko.

Edonola ere, beharrezko jotzen duenean edo festak amaitu direnean, jasotakoaren laburpen bat (datu pertsonalen berri eman gabe) eman beharko dio Mahaiari, eta beti jasotako informazioetakoren bati jendaurreko erantzuna eman baino lehen.

#### **PROKOKOLO HONETAN PARTE HARTZEN DUTEN ERAKUNDEEN ETA KOLEKTIBOEN ERANTZUKIZUNAK:**

- Udalak antolatutako prestakuntzan parte hartzea eta bai Festetako Eraso Sexisten Kontrako Mahaiak antolatutako sentsibilizazio kanpainan ere, proposamenak eginez eta, beharren arabera, deitzen diotenean lagunduz.
- Eraso sexisten aurkako gaitzespena eta erantzuna festetako ekintza guztietan sartzea.

## 2.2 HERRITARRENTZAKO JARRAIBIDEAK

**Babesa ematea eraso pairatu duen pertsonari.**

**Bere iritzia eta nahiak errespetatzea, eta konfidentziasunez aritzea.**

**Koordinazioa.**

**Erasotzailea identifikatzea.**

**Zurrumurruak eragotzi eta moztea.**

### 2.2.1 ERASO SEXISTEN AURREAN

- Komentario iraingarri edo umiliagarriak, hitzeko abusuak, irainak, pertsona bati buruzko gutxiespen adierazpenak, etab.
- Onartu gabeko kontaktu fisikoko motak, nahi ez diren zirriak edo ukituak, etab.
- Ikur sexista iraingarriak erakustea.

#### Zergatik jardun

- Erasoa pairatu duen pertsona babesteko eta laguntzeko.
- Erantzuna koordinatzeko.
- Festa guneeetatik eraso sexistak desagerrarazteko.
- Hori egiteko erantzukizuna duzulako.

#### Noiz

- Zu bazara eraso pairatu duen emakumea.
- Norbait hurbiltzen bazaizu eraso diotela esateko edo txosnetan, tabernetan edo kalean baten bat erasotzen edo eragozten ari dela ikusten baduzu.

#### Nola jardun

1. Erasoa pairatu duen emakumea bazara, eskatu laguntza zurekin dagoenari edo tabernan zerbitzatzen ari zaizunari.
2. Erasoa beste pertsona batek pairatu badu: entzun, aztertu kasua eta errespetatu emakumearen erabakia, bere intimitatea eta konfidentziasuna.
3. Galdetu eraso pairatu duen emakumeari ea laguntzarik behar duen. Ezetz esaten badu, ez diogu behin eta berriz galdetuko.
4. Baietz esaten badu, laguntza eskainiko diogu eta lagun egiten egongo gara. Gainera, Udaltzaingoaren telefonoa emango diogu (609 419 444), nahi izanez gero dituen baliabideen gaineko informazioa eskatzeko aukera izan dezan.
5. Erasotzailea jaien esparrutik, tabernetatik... joatea bultzatuko dugu, ospa egiteko esango diogu musika itzaltzen, kontzertua edo emanaldia eteten joan arte. Ez badu kasurik egiten, Udaltzaingolari deitu eta identifikatu.

### 2.2.1 SEXU ERASOEN AURREAN

- Pairatzen duen emakumea behartzen duten eta bere sexu askatasunari erasotzen dioten jokabide sexualak dira.

#### Zergatik jardun

- Eraso pairatu duen pertsona babesteko eta laguntzeko.
- Erantzuna koordinatzeko.

#### Noiz

- Eraso sexista bat ikusten baduzu.
- Norbait laguntza eske hurbiltzen bazaizu.
- Gertatu dela baldin badakizu.

#### Zer egingo dugun

1. Eraso pairatu duen emakumea bazara, eskatu laguntza zurekin dagoenari edo tabernan zerbitzatzen ari zaizunari. 112 telefono zenbakian urgentziazko arreta eska dezakezu.
2. Eraso bat gertatzen ari dela ikusten baduzu, hurbildu eraso pairatzen ari denarengana eta galdetu ea laguntzarik behar duen. Laguntza eske gerturatzen bazaizu inor, eman lehentasuna.
3. Entzun arreta eta errespetu handiz. Eman laguntza emozional guztia, eta ez utzi bakarrik.
4. Berehalako laguntza behar baduzu, deitu:  
112 SOS NAFARROA eta Udaltzaingoari (609 419 444).  
Egon berarekin laguntza iritsi arte eta identifikatu erasotzailea.
5. Ez badu berehalako laguntza behar, galdetu ea salaketarik jarri nahi duen. Salaketa jarri nahi badu, hona deitu dezala: 112 SOS.

Bortxaketa gertatu bada, esan emakumeari ez aldatzeko arropa eta ez garbitzeko. Ahozko bortxaketa izan bada, ez du ez edan ez jan behar, erasotzailearen kontrako frogak desagerrarazi ditzake.

Foruzaingora, ospitalera edo osasun etxera (112 telefonoaren bidez) joan behar badu, emakumeak jakin behar du salaketak ofizioz jartzen direla.

**EZ BADA** salaketa jarri edo ez,

1. Adieraz iezaiozu ez dituela frogak desagerrarazi behar zer egin behar duen erabaki arte.
2. Eskain iezaiozu Udaltzaingoaren telefonoa (609 419 444), eskuragarri dituen zerbitzuen eta baliabideen gaineko informazioa jasotzeko.

## 2.3 ERANTZUN INSTITUZIONALA

Udalak ez du inprobisatutako erantzunik emango, jasotako informazioa egiaztatu arte, nahiz eta hedabideek horretarako presioa egin. Gainera, beti errespetatuko da eraso pairatu duen emakumearen pribatutasuna.

Gertakariaren larritasunaren eta oihartzun publikoaren arabera, garrantzitsua da jarrera publikoaren adierazpena ahalik eta denbora tarte txikienean bukatzea erakundeak gertatutakoaren berri izan duenetik. Sexu erasoen kasuan eta/edo kasu larrietan, Nafarroako Berdintasunerako Institutuarekin koordinatu beharko da, protokolo berezia baitu halako kasuetarako.

### Komunikazioa

- 1. Komunikazioa Kudeatzeko Mahaia** deitu edo eratuko da: Alkatetza, Berdintasun Arloa eta Udaltzaingoa. Berdintasun Arloak adierazpen instituzionalaren proposamen bat prestatuko du, Bozeramaileen Batzarrari aurkezteko eta hark onesteko. Proposatzen da mahai hori izatea beste eragile instituzional edo sozial batzuei udal informazio ofiziala emango dien iturri bakarra.
- 2. Bozeramaileen Batzarra** biltzeko deia egitea, adierazpena onartzeko.
- 3. Osoko bilkura berezia.** Gaitzespena adierazteko elkarretaratze ofizialaren deialdia egitea. Herri-akzioa egiteko udala pertsonatuko den erabakiko da (erabaki hori atzeratu egin daiteke, kasuaren arabera).
- 4. Festetako Eraso Sexisten Kontrako Mahaiaren** deialdi berezia egingo da eta komunikazio arloan udal jarduketan gaineko informazioa emango zaio.
- 5.** Gertatutakoari toki nagusia emango zaio udal webgunean (esate baterako, hasierako orria beltzean jarriko da eta esku lila erdian), **sare sozialetan eta komunikatorako beste euskarri batzuetan.**
- 6.** Toki erakundearen fatxadan esku lila/gorria duen pankarta edo olana jarri edo ez erabakiko da.
- 7.** Banderak makila erdian kokatuko diren eta zenbat denboran erabaki beharko da.



**8.** Idazkaritzak erakunde adierazpena bidaliko die gainerako toki erakundeei, haien atxikimendua lortzeko, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren bidez.

**9.** Egindako mobilizazioa dela-eta, alkateak sinatutako eta esker ona adierazteko ohar bat bidali ahal izango zaie herritarrei. Udal webgunean, Facebooken eta abarretan jarri ahal izango da.

**10.** Alkateak sinatuta, esker ona adierazteko ohar bat bidali ahal izango zaie familiari doluminak eta sostengua adierazi dieten udal guztiei, udal webgunearen bidez.

## **Informazioa tratatzea**

Informazio guztia isilpekoa edo konfidentziala izango da, eta kasuan zuzenean esku hartzen duten langileek baino ez dute izango, dagokien lanbide erantzukizunaren arabera, indarkeria pairatu duen emakumeari edo erasotzaileari buruzko datu identifikatzaileen berri.

Era berean, toki erakundeak eta protokoloan inplikaturako beste erakunde batzuek ez dute emango biktima bere ingurunearekin identifikatu edo lot dezakeen informaziorik, intimitatea gordetzeko duen eskubidea babesteko eta berriro biktima bihurtzea saihesteko. Hortaz, gertatutako indarkeria motari buruzko datu orokorrak baino ez dira emango, hartutako neurriak justifikatzeko beharrezkoak direnak.

## **KOMUNIKAZIO PUBLIKOAN KONTUAN HARTU BEHARREKO ALDERDIAK**

- 1.4. atalean proposatu den terminologia erabiltzea.
- Erantzun publikoa hitzartzerakoan, garrantzitsua da eraso pairatu duen emakumearen iritzia aintzat hartzea.
- Agerian utzi behar da erasoaren jatorria, duen egiturazko izaera, ez dela gertakari bakartu bat eta gizonek emakumeen gainean eraiki dituzten nagusitasun eta botere harremanekin zerikusia dutela.
- Argi utzi behar da erantzule bakarra erasotzailea dela. Erasoa pairatu duen emakumea errudun bihurtzen duen diskurtsorik ez egin, era honetako argudioak erabili gabe: emakumearen jokabidea, janzkera, erasotzailearekin zuen harremana, kultura, eraso gertatu den ordua, salaketarik jarri ez izana, eta abar.

- Batzuetan, zaila izaten da berehalako erantzuna prestatzea, erasoak gertatu zenetik denbora tarte bat igaro ondoren izaten baita haren berri. Beste alde batetik, oso ongi adostu behar da zer esan behar den eta zer ez, bizirik atera diren biktimen identitatea babesteko.
- Salaketa erasoak gertatu zenetik egun batzuk igaro ondoren egiteak ez dio indarririk kentzen salaketa horri.
- Emakumeak ez dira erantzule moduan aurkeztuko, baldin eta erasotzailearen kontrako salaketarik ez jartzea erabakitzen badute. Kontuan hartu behar da zer egoeratan gelditzen diren salaketa jartzen duten emakumeak, ea babesik baduten eta inguruan sare sozial eta afektiboa duten, bi kasuetan berriro biktima bihurtzea saihestuta.
- Bizirik atera diren biktimen seme-alabak emakumeen kontrako indarkeriaren biktima zuzenak dira.
- Ez da espekulatu behar erasoaren arrazoien gainean: itxura fisikoa, jeloskortasuna, erasotzailearen edo biktimaren izaera, jatorria edo beste batzuk. Ez da aipatuko erasoak pairatu duen emakumearen jatorria, ez eta erasotzailearena ere, ez baita garrantzitsua eta iritziak ematea besterik ez baitu ekartzen. Gainera, argi utzi behar da ez dagoela erasotzailearen profil argirik.
- Mezuak beldurra ez eragitea edo emakumeen askatasuna ez mugatzea saiatu beharko da. Gainera, beldurra emakumeak kontrolatzeko beste modu bat ere bada.
- Ez da eraso bat justifikatzen edo bitartekaritza errazten duen adierazpenik egingo, azken hori legez debekatuta baitago.
- Mobilizazioetarako deiak egitearen helburua gertakari matxista hauen gaineko isiltasuna amaitzea, kontzientzia sortzea eta kaltea konpontzen laguntzea da.

## 2.4 HILKETA KASUAK ETA OSO EGOERA LARRIAK

Nahiz eta eraso larrien kasu guztietan jarduten den moduaren antzera jardun, bere larritasunarengatik eta gertakariak jendaurrean izango duen oihartzunarengatik, udalaren jardunak amaituta egon beharko du ahalik eta azkarrena, Alkatetzak gertakari horren berri izan duenetik. Kalkulatzen da epe gomendagarria 24 orduetik beherakoa izatea, behin gertakariaren berri izan denetik, baldin eta gertatutakoaren gainean informazio ofizial egia eta nahikoa bildu bada. Batzuetan, zaila izaten da berehalako erantzuna prestatzea, eraso gertatu zenetik denbora tarte bat igaro ondoren izaten baita haren berri. Salaketa eraso gertatu zenetik egun batzuk igaro ondoren egiteak ez dio indarrik kentzen salaketa horri.

### Jarduteko ibilbidea

1. Gertaera berretsi behar da, ikerketaz arduratu den polizia kidegoaren bidez.
2. Bizirik gelditu den biktimarekin eta/edo familiarekin harremanetan jarri behar da, elkarrizketa pertsonalizatu baten bidez:
  - a. Gertaeratik erator daitezkeen beharrei (juridikoak, psikologikoak, baliabideei eta laguntzei buruzko informazioa, arreta seme-alabei...) berehalako erantzun profesionala ematen ari zaien egiaztatu eta bermatzeko.
  - b. Biktimari edo familiari baimena eskatzeko, udalerrian gertatutakoa gaitzesteko ekintza publikoak egiteko (haien denborak eta egoera bizitzeko modua errespetatuta).
3. Osoko bilkura berezi baterako deia egingo da, gertatutako emakumeen kontrako indarkeria kasua gaitzesteko testu bat onartzeko eta arbuioa adierazteko elkarretaratze bat egiteko. Saio horretan erabakiko da tokiko erakundea zigor prozeduran pertsonatzen den herri-akzioa gauzatzeko. Erabaki horren berri emango zaio biktimari edo familiari. Biktimaren edo familiaren baimena izatea gomendagarria da.
4. Nafarroako Berdintasunerako Institutuarekin harremanetan jarri behar da, jarduketak koordinatzeko.
5. Gaitzespena adierazteko elkarretaratzerako deialdia egin behar da, udal bandoaren, iragarki taularen, webgunearen, udalerriko emakumeen elkarten

eta talde feministen, eta abarren bidez. Deialdi horretan, osoko bilkuran onartutako arbuio testua irakurri ahal izango da.

## **Esku hartzeko irizpideak**

- Kasu hauetan ezinbestekoa da erakundeek emakumeen kontrako indarkeria gaitzestea.
- Gertakarien konfidentzialtasuna eta emakumeen eta beren seme-alaben anonimotasuna bermatu behar da, haiek eta familiek hala eskatzen badute.
- Gertakaria jendaurrean jartzeagatik berriro biktima bihurtzea saihestu behar da.

## **Testu ofizialetan eman beharreko mezuen edukia**

- Emakumeen kontrako indarkeria dagokion testuinguruan sartu behar da, erantzunik gabe gelditu ezin den giza eskubideen urraketa larri gisa.
- Gertakari horiek izendatzeko “emakumeen kontrako indarkeria”, “indarkeria matxista” edo “indarkeria sexista” esapideak erabili.
- Beste hauek, berriz, ez erabili: “pasiozko krimena”, “bikote barneko indarkeria”, “etxeke indarkeria”, “homizidioa”.
- Ez egin emakumeak errudun eta ez justifikatu indarkeria, inolako arrazoiengatik.
- Emakumeen jatorriaren, etniaren, egoera pertsonalaren, familiarraren edo lanekoaren gaineko informaziorik ez eman, ez eta seme-alabenik ere, halakorik badago.